



Ortiz de Guinea, Iglesias eta Ziani txapeldun



L-Okog
krosarekin bat!

ASEGURUAK
Ges

Kalitatezko zerbitzua da
gure lanaren arrazoia

- Etxeko aseguruak
- Kotxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...

GIZARTEA

Beldur barik lehiaketa herrian

Azaroaren 12an itxiko da lanak aurkezteko epea

Beldur Barik lehiaketa antolatuta du Udalak herri mailan aurten lehenengo aldiz. Lehiaketa bikoitza izango da ordea, alde batetik, Berdinsareak Euskal Autonomia Erkidegoan antolatzen duena eta bestetik, Lasarte-Oriako lehiaketa propioa.



Azaroaren 21ean banatuko dira sariak, Manuel Lekuonan.

Lehiaketa honetan, emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerari aurre egiten dioten pertsonen "arte-adierazpen mota oro" onartu, baloratu eta bultzatuko da.

Kalitate tekniko edo artistikoaren gaintetik, mezuaren kalitatea baloratuko dela esan dute Manuel Lekuonako areto nagusian egindako prentsurrekoan, "gogoetak eta eztabaidak sortzeko gaitasuna" duten obrak bildu nahi dituztela jakinarazi dute.

Lehiaketaren ezaugarriak

Lehiaketara 12 urtetik hasita 30 urte arteko gazteak aurkeztu daitezke, (Lasarte-

Oriako sarietarako herrian errodutakoak baino ez dira kontuan hartuko).

Adierazpen artistiko mota oro onartuko da, baldin eta ikus-entzunezko formatuan aurkezten bada: flashmob, kamera aurrean errezitatutako poemak edo irakurritako gogoeta-testuak, argazkiak, argazki-muntaiak, fononobelak, lipdubak, dantza, film laburrak, animazio proiektuak, edo artelanak bideoan aurkeztuta, performanceak...

Lehiaketan parte hartu nahi duten pertsonen beraien

bideoak Youtube edo Vimeo-ren gisako plataformetara igo behar dituzte eta ondoren Emakumearen zentrorra joan beharko dute datuak ematera. Arreta orduak astelehen eta asteazkenetan 16:00tik 19:00etara eta astearte, ostegun eta ostiralean 10:00tik 13:00etara izango dira.

Bi kategoriatan banatuko dira sariak herriko lehiaketan. 12 urtetik 17ra izango da lehena eta 18ti 30era bigarrena. Bi sari emango dituzte bietan: 300 eurokoa lehena eta 150euroa bigarrena.

AISIA

Irakurle Txokoa martxan

Asteazkenean hasi zuen ikasturtea Irakurle Txokoak. Manuel Lekuonako hitzaldi aretoan bildu ziren eta Uxue Alberdik egin zituen dinamizatzaile lanak. Bernardo Atxagaren 'Nevadako Egunak' eleberrirari buruz hitz egin zuten. Azaroaren 18an Lander Garro idazlearen 'Gerra Txikia' nobela aztertuko dute. Idazlea saiora joango da, Irakurle Txokoko kideekin hitz egitera.

EUSKARA

Errigoraren udazkeneko kanpaina abian

'Nafar Hegoaldeko uzta euskarari puzzle' izeneko kanpaina prestatu du Errigorak. Herri desberdinetako hainbat elkarteek parte hartuko dute Errigoraren udazkeneko kanpaina; Ttakun dago horien artean. Iaz bezala, produktuz betetako saskiak erosi ahal dira, Nafarroa Hegoaldeko euskarari eta denen elikadurari bultzada bat emateko. Antolatzaileek nabarmendu dute "ahalegin berezia" egin dutela ekizile gehiagoren produktuak sartzeko; 10 izan dira aurten, iaz baino 5 gehiago. Gaur irekitzen da saskiak eskatzeko epea, eta azaroaren 12an itxiko da. Azaroaren 17tik 30era banatuko dira saskiak, eta abenduaren 1etik 7ra ordaindu. Saskien prezioa 50 eurokoa da. Ttakunen egin ahal izango dute herritarrek euren saskiaren eskaera. Bertan datuak hartuko dira eta ondoren, esango da zein egunetan ordaindu eta jaso. Jasoko den diruaren %25 Erriberako ikastolera, Erriberako AEKra eta euskaraz bizi eta ikasi herri ekimenaren Hamarraz proiektura bideratuko da.

UDALA

Sasoeta sasoitzen bigarren bilera

Sasoeta Sasoitu! egitasmoaren 3. fasea martxan da. Auzoko biztanleak gaztelekuan izan ziren joan den asteartean, Sasoetak dituen gabeziak identifikatzen. Bihar egingo dute beste bilera bat, 18:00etan, leku berean. Auzoa nolakoa izateko nahi duten adieraziko dute.

GIZARTEA

Aniztasunaren jaialdi koloretsua

Larunbatean herriko kultura ezberdinak ezagutzeko parada izan zen jai berezian

Larunbatean egun osoan zehar ekintzak izan ziren udalak herriko hainbat elkarteekin antolatutako aniztasunaren jaialdiaren baitan. Jendetsuenak herrialde ezberdinetako dantzen erakustaldia eta aniztasunaren kantarentzat dantzaren grabazioa izan ziren.

A laia eta koloretsua izan zen larunbateko aniztasunaren jai. Lehenak festa giroa jartzen Dinbi Bandakoak izan ziren ostiralean. Iluntzean emanaldia eskaini zuten Okendon eta dantzan jarri zituzten denak.

Larunbat goiza berriz, kirolarekin hasi zen. Sasoeta-Zumaburu eskolako Burunzpe elkarteak boleibol eta futbol partidak egin zituen kiroldegian. Hauetan parte hartu zuten jatorri ezberdineko gurasoak eta lehenengo partidara gerturatu zen alkatea ohorezko jaurtiketa egitera.

Okendon mintzodromoa izan zen Banaiz Bagarako kideekin. Etorkinei buruz eta emigrazioaz hitz egiteko aukera izan zuten parte hartzaileek talde txikitik banatuta. Eguerdian hasi zen plazan dantza erakustaldia. Erketzek zabaldu

zuen agurrarekin eta ondoren oholztatik pasa ziren Ekuador, Sahara, Errumania, Afrika eta Nikaraguako dan-tzariak. Semblante Andaluzeko dantza taldeak ere dantza bat eskaini zuten baita Kukukako talde batek ere. Dantza eta jantzi koloretsuek erakutsi zuten herrian dagoen kultur aniztasun eta aberastasuna.

Hain zuzen, anitzak garaia aldarrikatzeko, kanta prestatu dute bertso eskola eta Makulu Kenekoe. Lehenengo aldiz entzun zen Okendon, eta Kukukak prestatutako pausuak ahalik eta hoberen jarraituz, dantza zuten herritar askok. Bitan egin zen dantza eta hau udala prestatzen ari den bideoan ikusi ahal izango da.

Jaki dastaketa eta Banaiga Banden musika, eliza evangelikoa eta amaiera ekitaldi xumea izan ziren ondoren.



Kirola eta solasaldirako tartea izan ziren baina dantza erakustaldiak jende asko erakarri zuen Okendora.

Lasarte-Oria saretzen

Hasi du ikasturte berria Lasarte-Oriako Gure Esku Dagok. Bilera irekia egin zuen Villa Mirentxun. Ekainaren 20koa izango da eronka nagusia Euskal Herri mailan: Anoeta estadioan 57.000 pertsonak postontzi erraldoi bat irudikatu beharko dute. Horietatik 1.400 Lasarte-Oriatik joango dira.

Ekintza ugari prestatu dituzte aurtengo ikasturterako; Lasarte-Oria "saretzea" izango da handiena. "Lehenengo urtean guk antolatutako ekintzatan parte hartu duzue herritarrok; aurten, ekintzen parte izatera pasako zarete", esan zuten. Aurtengo herri mailako ekimenak ez

daude finkatuta oraindik, baina Euskal Herri mailakoak bai. Hiru izango dira: mosaiko erraldoia osatuko da Zuriolan azaroaren 8an (160 herritar behar dituzte), Euskal Herriko herri guztietan festak egingo dira apirilaren 25ean, eta Anoeta estadioan postontzi bat irudikatuko dute 57.000 pertsonak (Lasarte-Oriatik 1.400 biltzeko eronka dute).

Oihana Beltranek esan zuen eronka zaila dela, baina "gai" ikusten du herria helburu lortzeko: 1.400 laguneko sare bat osatzea Lasarte-Orian, ekainaren 20ko ekintzan parte hartzeke. Egitura honakoa da: taldeka



Bilera afariakin bukatu zuten.

banatuko dituzte "saretuak", 20 bakoitzean. Talde bakoitzak tutore bat edukiko du. Hortaz, aurreikuspenak betetzen badira, 70 tutore egongo dira guztira. Tutore bakoitzak 20 saretu edukiko ditu.

Ostegunean jakingo da Ibon Fernandezaren epaia

Larunbatean herritar talde batek agerraldia egin zuen Ibon Fernandez Iradi presoaren egoeraz kezka azaltzeko. Ostegunean jakingo da azken epaia zein den. Hau dela eta, gaur presoari buruzko "Oihu Anizkoitza" film laburra ikusi ahal izango da Manuel Lekuonan 19:00etan. Ostiralean ere, ekimen berezi bat egingo da gaixo dauden presoaren alde Okendo plazan 20:00etan.

Lanbidezko dago preso Ibon Fernandez eta esklerosi anizkoitza tratatu ahal izateko zigorra etetea eskatu zuen.

Ekainean jaso zuen auzitegiaren erantzuna, batetik, kondena etetearen aldekoa zen. Bestetik, bi baldintza jarri zituzten askatzeari, Frantziar bizitzeko duen debekua altxatu behar ziola eta debeku hori altxatu ondoren, Pirinioetako departamendutik kanpo bizi beharko duela. "Lehenengoak egoeraren larritasuna aitortzen zuten, bigarrenak prozesu luze batean sartuz askatzea zaildu egiten zuten" esan zuen Ixiar Arteagak. Abokatu zein fiskalen helegiteak jaso eta epaileak hartuko du erabakia.



Jai!gi

KAFE-ANTZOKIA

Giro ederra!
Pintxo goxoak!






Krosarekin
bat eginez!



GELTOKI KALEA 4 BEHEA
LASARTE-ORIA • Tel.: 943 377024





Klinikan %15eko deskontua
implante tratamenduetan

* Beste deskontuei eta sedazioari ezin zaie gehitu deskontu hori.

- implanteak eta hortz fijoak egun batean
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
- "invisalign" ortodontzi ikusezina
- haurrentzako ortodontzi tratamendu prebentiboak eta korrektoreak (Osakidetza-PADI)
- pazientearen irribarra sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
- interesik gabeko finantziaketa 18 hilabete arte

Deitu gure zerbitzua ezagutzeko


943 366 377

Ola kalea,10 San Bartolome, 22
Lasarte-Oria 20160 Elgoibar 20870
www.dentalaldaz.com



L-Oko
krosaren
alde

RPS: 124/10





Elbarrituak bi minutuko aurrerapenarekin irten ziren.



Erketzeko dantzariak agurra dantzatu zuten lasterketari hasiera eman aurretik.



Hernaniko Karen Ortiz de Guinea izan zen emakumezkoetan lehenengoa.



Kros jendetsua izan zen atzokoa; 1.000 korrikalari inguruk egin zuten 10,5 kilometroko ibilbidea.



Raul Gomez Margallo (eskubian) izan zen lehen herritarra helmugan.

Kamel Ziani garaile Lasarte-Oria Bai! Krosaren XIX. edizioan

Korrikalariz bete ziren atzo herriko kaleak; giro ederrean burutu zuten 10.500 metroko ibilbidea

Eguzkia izan zen nagusi atzo zeruan. Helduen lasterketan berriz, Oriotik etorritako tximista: Kamel Ziani. 33:26 minutu markatzen zituen markagailuak, korrikalaria helmugara iritsi zenean. Atzetik, beste 1.000 lasterkari inguru. Karen Ortiz de Guinea hernaniarra izan zen emakume azkarrena; 42:42 minutuko denbora egin zuen. Elbarrien kategorian berriz, Orioko Jose Antonio Iglesiasek jantzi zuen txapela. Raul Gomez Margallo izan zen helmuga zeharkatu zuen lehenengo herritarra, 34:56 minutuko denborarekin. Ezin izan zuen podiumean sartu; bosgarren postuan amaitu zuen.

ziren asko, azken beroketa ariketak egiten beste asko... Hasteko agindua entzutea, hori zen denen desioa.

Lasterketa buruan hasieratik Entzun zuten agindua azkenean, eta atera ziren 1.000 inguru korrikalari 10,5 kilometroko ibilbidea egitera. Horietatik 415 herriko korrikalariak izan ziren.

Sei korrikalariko talde txikiak osatu zen lasterketa hasi eta berehala: Kamal Ziani, Unai Arroyo, Sergio Roman, Raul Gomez Margallo, Raul Tejado eta Jose Luis Delgado (herritarrek azken hiru horiek). Azkenean Ziani gailendu zen Okendo plaza ondoko helmugan, 33:26 minutuko denbora eginez. 12 segundora iritsi zen Unai Arroyo tolosarra, eta 14ra Sergio Roman hernaniarra, podiuma osatuz.

Raul Gomez Margallo izan zen lehenengo herritarra, 34:56 minutuko denbora eginez. Raul Tejadok (35:29) eta

TXINTXARRI

Zita berezia izaten da herriarentzat Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoa, eta nabaritu zen atzo. Eguraldiak ere lagundu zuen, zalantzarik gabe. 10:30ean hasi zen lasterketa, baina herria askoz lehenago hasi zen girotzen. Antolatzaileak, laguntzaileak, helmuga inguruan toki ona hartzeko goiz jaiki ziren herritarrek, korrikalari batzuk beroketa ariketak egiten, dortsalak ongi jartzen beste batzuk... Krosa bete-betean.

Elbarrien mailako lasterkariak hasi ziren lehenengo. Gainontzeko korrikalariak baino bi minutu lehenago atera ziren. Horren aurretik, Erketz EDT taldeko kideek agurra dantzatu zuten, urtero legez. Esatari lanetan Asier Odriozola herritarra aritu zen, atzoko ekitaldi jendetsuari ahotsa jartzen.

Elbarriak atera eta bi minutu irten ziren gainontzeko korrikalari guztiak. Tentsioa eta hasteko gogoia igartzen zen hasierako lerroetan zeuden lasterkarien artean. Erlojuak prestatzen ari

Helduen lasterketan parte hartu zuten korrikalarien %40 lasarteoriatarrek izan ziren; 415 herritar izan ziren guztira

Jose Luis Delgado (36:03) osatu zuten herriko senior gizonen podiuma.

Elbarrien mailan Jose Antonio Iglesias oriotarrak zeharkatu zuen helmuga lehendabiziko postuan.

Emakumezkoetan Hernaniko Karen Ortiz de Guinea hernaniarra jantzi zuen txapela atzo. 42:42 minutu behar izan zituen. Usurbilgo Rosa Uribe izan zen bigarren, 43:33 minutuko denborarekin. Podiuma Anabel Eleno herritarrek osatu zuen (43:57).

Herriko senior emakumezkoen podiuma honakoa izan zen: Rebeca Villanueva lehenengo (45:46), Amagoia Fernandez de Lezea (46:41) eta Maite Salazar (51:09).

Beroa, oztopo beste behin

Helmugara iritsi ostean, lasterketan zehar jasandako beroak kezatu ziren hainbat atleta. Beste batzuek ordea, ez zuten horrelako sentazioirik izan. Beroa askorentzat oztopo izan arren, satisfazio aurpegi eta keinuak izan ziren nagusi helmugan.

Antolatzaileak, "oso pozik"

"Satisfazio" hitza jarri daiteke baita ere Ostadar SKTko kideen ahotan. Aitor Azkonobietak azaldu zuenez, "oso pozik" geratu ziren antolatzaileak krosarekin: "Lasterketa ongi joan da, primerako eguraldia egin du eta 1.000 lasterkariren langa gainditu dugu". Bereziki pozik agertu zen herritarren parte-hartze mailarekin: "415 herritarrek egin dute korri aurten, lasterkarien %40 baino pixka bat gehiago; asko poztzen gaitu datu horrek".

Arzoren bat edo beste ere izan zen atzoko krosan. Deshidratatuta iritsi zen korrikalari bat helmugara, eta konortea galdu zuen. Donostiako Ospitalera igo zuten berehala. Konortea berreskuratu zuen arren, ingresatuta mantendu zuten atzoko egunean.

Arzoak arazo, aurtengo krosaren balantzea positiboa izan da oso, eta giro ederra bizitu zen atzo herrian, beste urte batez. Egun bat gutxiago geratzen da XX. ediziorako.



Lasterketa buruan berehala jarri zen bost korrikalarik osatutako talde txiki.



Kamel Ziani, garaipena ospatzen.



Lasterketa amaitu ostean, urteroko ohitura: argazkia atera zuten sail guztiak irabazleek elkarrekin.



ABEND

KAFE-ANTZOKIA

Goizeko Sak arte irekita!

EGUNEKO MENUA
DANTZA
BOKATAK
KONTZERTUAK

Pablo Mutiozabal 5 • Tel.: 943 372089
LASARTE-ORIA

L-Oko krosarekin bai eginez!

ETXEZARRETA

HARATEGIA



Zorionak korrikalari guztiei!

Lasarte-Oria Bai

Hipodromo etorbidea 2 • Tel.: 943 361379
LASARTE-ORIA

Amaitu dugu bidea, berri bat hasteko

Rodriguez, Ormazabal eta Altunak azken aldiz egin dute krosa LOKEren kamisetarekin

Jon Altuna Egitegi Txintxarriko kazetariak Lasarte-Oria Bai! krosoan bizitako abenturak eta kalenturak kontatu dizkigu bigarren urtez jarraian, barru-barrutik. Lasterketa aurreko, lasterketa osteko eta lasterketa bertako bizipenak idatzi ditu LOKEko atletak. Aurten agur batekin gainera.

JON ALTUNA EGITEGI

Bueno ba. Hemen gaude bigarren urtez krosaren abenturak eta kalenturak zuei kontatu asmoz. Iaz batzuek gogoratuko duzue nire gurutzebidea, hego-haize malapartatu hura eta kamiseta laranjeko laguna. Ba aurtegoan denbora antzekoa izan bada ere, sentsazioak oso bestelakoak izan dira, eta azkenean, emaitzak baino garrantzitsuagoak direnez bizipenak, oso pozik nagoela esan dezaket.

Iazkoarekin alderatuta eguna ezberdin hasi dut. Iaz zappi terdian esnatu nintzen umetan Olentzerok opariak pinupean uzten zizkigun goizetan bezala. Aurten ordubete gehiago egin dut lo, eguneko lehenengo erabaki ona.

Iaz te berdea gosaldur nuen. Aurten kafea. Eguneko bigarren erabaki ona. Iaz ogi xigortua olio eta York urdaizpikoarekin, aurten Kit-Kat eta gailetak. Azukrea alegia, hamar kilometro eta erdi egiteko gorputzarentzat gasolina. Eta nabaritu egin dut.

Berriro gozaten

Argazkian ageri diren beste hiru lagunekin geratu naiz goizeko 9:45ean, Gaizka eta Itoitz taldekideekin eta Oscar entrenatzailearekin. Beroketa txiki bat eta luzaketa ariketak egin ditugu. Gorputza puntuan jarri eta irteera lerroa hurbildu gara. Aurten ere aurrean kokatu gara, aurreragi egia esan.

Erketzekoen agurra, elbarrin irteera eta *pum!* Bagoaz. Lehen kilometroan, Urbileko aldapan gehiegi ez betetzen

saiatu naiz, ondo noa, kilometroa 3:30 pasatxora. Bada- kit azkarregi dela, baina egongo da eritimoa jaisteko aukera.

Tajamarreko errotondatik Goiegiko aldapa igotzen ari ginela hasi zaizkit hankak malapartatu hura eta kamiseta laranjeko laguna. Ba aurtegoan denbora antzekoa izan bada ere, sentsazioak oso bestelakoak izan dira, eta azkenean, emaitzak baino garrantzitsuagoak direnez bizipenak, oso pozik nagoela esan dezaket.

Izota zoazenean, burmuinera ez da oxigeno askorik iristen, baina erregulaztearen garrantziaz akordatu naiz zorionez. Sasoi betean ez nagoela ohar-tuta, nire buruari esan diot, "Hi, txikito, nora hoa?" eta Oriatik Hipodromo parerainoko kilometroak 4:00tik gora egin ditut, dezentte gora. Eta eskerrak, artean hiru kilometro falta zitzaizkidalako helmuga-marra zeharkatzeko.

Tipi-tapa iritsi gara Dana Onako bihurgunera. Urteroko momentu politena. Ziur nago entrenatzailearekin. Beroketa txiki bat eta luzaketa ariketak egin ditugu. Gorputza puntuan jarri eta irteera lerroa hurbildu gara. Aurten ere aurrean kokatu gara, aurreragi egia esan.

Eskerrik asko hiruron izenean LOKERI, txikitik ere gauza handiak egin daitezkeela irakasteagatik



Oscar Goikoetxea LOKEko prestatzailea, Itoitz Rodriguez, Gaizka Ormazabal eta Jon Altuna krosari ekin aurretik.

tzun ditut "Aupa Jon!", "Oso ondo Altuna!", "segi segi Jon!" eta nire taldekideak ematen ikusteak indarberri egin nau. Mila esker neskak!! Muxu bana!

Bagoaz Zubietara, ez dirudien arren, bideak goruntz egiten du eta ditudan indar apurrak uzteko garaia da. Konturatzerako kilometro eta erdiko azken zuzengunean nago, fresko antzean. Aita ikusi dut konoekin Michelin parean, barre egin diot, iaz ezinezkoa zitzaidan halakorik egitea azken zuzengunean. Michelin pasata aurpegi ona jarri, belauak igo, bularra atera eta eritimo aldaketa bortitza. Azken 500 metroak minutu eta erdi pasatxoan. Hegan. Horrela amaitu daiteke Lasarte-Oria krosa! Horrela amaitzeak ez du preziorik.

Argazkian alboan ditudan hiru horientzat ez. Horiek badakite zenbat sufritzen dugun astean bost egunez, zenbat gustatzen zaigun egiten duguna eta zenbat gauza utzi behar izan ditugun alde batera LOKEko atleta izan garen urteotan.

Hasten den guztia amaitzen dela diote ordea. Eta beno, ba amaitu dela gure ibilbidea Lasarte Oria Kirol Elkartearen. Datorren urtean

Azken lasterketa LOKErekin

Entrenamendu sisteman aldaketa bat egin dut iazkoarekin alderatuta. Kilometro gehixeagorekin ailegatu naiz krosera, intentsitate gutxiagorekin egin ditut oro har aurtego entrenamenduak, urteko helburuak urrun (oso urrun) daudenaren jakitun.

Nire espezialitatea iraupen erdiko 800 metroen proba den arren, herriko krosa sakratua da, eta kuadrilan edo herrian garrantzitsuagoa da krosera denbora txukuna egitea pistako beste edozein lasterketan maila ona ematea baino.

Argazkian alboan ditudan hiru horientzat ez. Horiek badakite zenbat sufritzen dugun astean bost egunez, zenbat gustatzen zaigun egiten duguna eta zenbat gauza utzi behar izan ditugun alde batera LOKEko atleta izan garen urteotan.

Hasten den guztia amaitzen dela diote ordea. Eta beno, ba amaitu dela gure ibilbidea Lasarte Oria Kirol Elkartearen. Datorren urtean

beste kamiseta batekin idatziko dut kronika hauxe, Super Amara-Bidasoa Atletiko Taldearenekin hain zuzen. Irunera goaz Gaizka Ormazabal eta ni neu, Txingudi bailara ederrera, nahiz eta hemen jarraituko dugun entrenatzen.

Eta bestea Itoitz Rodriguez, nazioartean konpetitza iritsi den atleta puska. Realera doa, Espainiako Ohorezko mailan lehiaztera, dagokion lekura alegia. Entrenatzen ikusten dudak bakoi-tzoro galdetzen diot nire buruari non ote duen muga mutil honek. Noiz joko ote duen sabaia. Ohorea da Gaizka eta niretzat berarekin entrenatzea. Plazerra.

Aukera handia da hirurontzat eta eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen: klubari, Amaia Andres presidente olinpikoari eta LOKEko neska-mutil guztiei. Bereziki Asier Eizagirre taldekide/lagunari (zorionak osaba!) eta Oscar Goikoetxea entrenatzaileari. Txikitik ere gauza handiak egin daitezkeela irakasteagatik.

Eskerrik asko.

Kamel Ziani Lasarte-Oria Bai! Kroseko irabazlea

"Arantza kendu ahal izan dut"

Orioko lasterkari beterranoak txapela eskuratu zuen 33:26ko denboran ibilbideko 10,5 kilometroak eginda. Berak aitortu bezala, iazko bosgarren postua gainditu eta garaipena lortzeko helburuarekin etorri zen atzokoan herrira.



Kamel Zianik garaipena zuen helburu.

Ez zen lehenengo aldia maratoni lasterkari beterranoarentzat Lasarte-Oria. Nazioarte mailako garaipen asko lortutakoa da Ziani baina dagoeneko distantzia luzea utzita du eta herrikoa bezalakoetan parte hartzea gustuko du.

Nola sentitu zara korrika?

Hiru Hondartzetako krosa egitekin nator. Horretan hirugarren sartu nintzen, eta helburua zen hemen Lasarte-Oria garaipena lortzea. Iaz bosgarren sartu nintzen eta aurten arantza kendu eta garaipena lortzea nuen buruan.

Gustura egin dut lasterketa. Pixkat sufritu dut ibilbidearen erdialdean baina konturatu naiz kideak ere sufritzen ari zirela eta eutsi egin diot.

Irabazle ikusten zinen?

5. kilometroan bakarrik ikusi naiz, bigarrenari 10 segundo atera dizkiot eta orduan bai, irabazle ikusi naiz. Azken kilometroan sufritu arren, garaipena lortzea nuen buruan.

pena gertu edukita, motibatu naiz eta ondo bukatu dut. Pozik nago lortutako denborarekin. Ez dut ondo gogoratzen baina uste dut duela urte batzuk marka hobea egin nuela hemen. Hala ere, irabazten denean, bigarren maila batean geratzen da denbora.

Hurrengo helbururik?

Urte asko eman ditut distantzia luze lasterketak egiten eta mundu guztiak galdetzen dit ea Behobia egingo duan, eta ez, ez dut egiteko asmorik. Goizteko egiten dut orain korrika eta Lasarte-Oria Bai! moduko kros herrikoietan aritzen naiz.

Jose Antonio Iglesias Lasarte-Oria Bai! Kroseko lehenengo elbarria

"Ibilbidea asko gustatzen zait"

1 zenbakia atera zuten gurgildun aulkian parte hartu zuten lasterkariak. Ostadarrek hauek egiten duten lana aitortu nahi izan zuen, omenaldi xume batekin. Iglesiasek urteak darमतza parte hartzen eta iaz bezala lehena izan zen atzo.

Jose Antonio Iglesiasek oso gustuko du proba eta ahal duen guztietan etortzen da.

Lehena izatea espero zenuen?

Oso ondo eta eroso sentitu

naiz ibilbide osoan zehar eta eguraldi ona lagun asko gozatu dut lasterketa.

Egia esan, ez nuen espero garaipena baina lasterketak aurrera egin ahala ikusi dut aukera nuela. Hamar urte dira gutxi gora behera, Lasarte-

Karen Ortiz de Guinea Lasarte-Oria Bai! Kroseko lehenengo emakumea

"Ikusleek asko animatzen dute hemen"

Hernaniarra izan zen helmugara iristen lehenengo emakumea. 42:42ko denbora eginda, pozik zegoen. Hirugarren aldia zen krosera parte hartzen zuela eta bereziki gustatzen zaio, ikusleek animatzen duten guztiagatik.



Karen Ortiz de Guinea pozik egindakoarekin.

Sorpresa hartu zuen Karenek lehenengo neska zela ikusita. 42:42ko denborarekin emakumezkoen artean lehena helmugaratu zen.

Garaipenarekin pozik?

Ez nuen inolaz espero lehenengo sar-tzea. Gustura sentitu naiz lasterketan, bi lagunek animatu naute eta beraiekin joan naiz bide osoan. Egia esan espektatiba handirik ez nuen lasterketa hasieran.

Egindako denbora ona al da?

Bai, markarekin pozik nago, ez nuen helburu zehatzik eta gustura korrika egitea besterik ez nuen nahi gaurkoan. Korrikalari askok eguraldi beroa aipatzen zuten eta bai, beroa egin du baina euriarekin baino hobeto moldatzen naiz ni.

Beste lasterketarik prestatzen ari zara?

Bai hurrengo helburua Behobia-Donostia lasterketa da. Maila onean iritsi nahi dut eta 10 kilometroko lasterketa hauek prestatuta ona dira. Herri lasterketa gehiago ere egingo ditut.

Zer iruditzen zaizu Lasarte-Oria Bai! krosa?

Hirugarren urtea da parte hartzen dudala eta oso gustura, jendearen animoek asko laguntzen dute. Hemen ikusleek beste herrietan baino askoz gehiago animatzen dutela iruditzen zait eta oso polita da. Azken metroak egiteko izugarriko laguntza dira.



Jose Antonio Iglesiasek esker oneko hitzak izan zituen antolakuntzarentzat.

Orioko lasterketa honetara etortzen naizela eta asko gustatzen zait. 10,5 kilometroko ibilbidea oso gustuko dut.

Omenaldi modura, bat zenbakia eraman duzue aurten...

Bai eskertzekoa da Ostadarren aldetik. Hala ere, esan behar da antolakuntzak hemen asko zaintzen gaituela urtero-urtero.

Gutaz oso pendiente egoten dira eta benetan guri ere badagokigu eskertzea boluntarioek egiten duten lan eskerga, pasada bat iruditzen zait.

Hemen berriz ikusiko zaitugu orduan... Noski baietz! Ahal dudan guztietan etortzeko asmoa dut Lasarte-Oriara, Kros Herrikoian parte-hartzera.

VENTANAS SAN MIGUEL
Zuregatik oso gertu!
kroseko korrikalariekin bat eginez!
Zirkuitu ibilbidea 10 (gasolindegia atzean)
Tel.: 943 362457 • LASARTE-ORIA

JUAN IRAOLA E HIJOS S.L. ITURGINTZA
Zorionak korrikalari guztiei!
Iñigo de Loiola Kalea 8 behea
administracion@iraola.eu
Tel.: 943 36 0 500 // 652 774679
www.iraola.eu

ITURGINTZA BEROKUNTZA AIRE GIROTUA GASA

CARNICERÍA ARANZABAL HARATEGIA
Etorri eta lastatu gure produktuak!
Zorionak korrikalari guztiei!
Jaizkibel plaza 11
20160 Lasarte-Oria • Tel.: 943 365156

Foto depilazioa argi pultsatuarekin
• Era ezberdinetako depilazioak
• Aurpegiko tratamenduak
• Gorputzeko tratamenduak
• Makillajeak
• Beste hainbat zerbitzu

MAITE ESTETIKAKO ARETOA
Krisi garaian, gure ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!
Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria



	Ofiziala	Erreala	Km.ko
6 Raul Gomez Margallo	00:34:56	00:34:56	03:20
9 Raul Tejado Muñoz	00:35:29	00:35:28	03:23
11 Andoni Illarramendi	00:35:38	00:35:36	03:23
14 Jose Luis Delgado Arenales	00:36:03	00:36:01	03:26
27 Iraitz Arruabarrena Juregi	00:37:22	00:37:19	03:33
42 David Cordero Martin	00:38:39	00:38:35	03:40
50 David Sanz Diez	00:39:08	00:39:02	03:43
53 Borja Romero Amantegi	00:39:15	00:39:12	03:44
54 Toño Perez Rodriguez	00:39:24	00:39:18	03:45
55 Xabi Carcedo	00:39:25	00:39:20	03:45
58 Javier Pastor Torrens	00:39:40	00:39:30	03:46
61 Imanol Arteaga Aizbitarte	00:39:45	00:39:35	03:46
67 Antonio Mazo Alvarez	00:39:59	00:39:56	03:48
75 Jon Altuna Egitegi	00:40:18	00:40:14	03:50
85 Ivan Garcia Caballero	00:40:40	00:40:36	03:52
87 Mikel Benito Basurto	00:40:40	00:40:25	03:51
88 Richard Marcos Martin	00:40:41	00:40:36	03:52
95 Markos Bujanda Trincado	00:40:54	00:40:48	03:53
96 Ramon Altuna Vegas	00:40:54	00:40:48	03:53
107 Iñigo Valdivia Calvo	00:41:20	00:41:10	03:55
109 Jose Ignacio Elvira	00:41:27	00:41:22	03:56
112 Julien Öllökiergi Biurarrarena	00:41:32	00:41:27	03:57
119 Juan Mari Marcos Molina	00:41:40	00:41:36	03:58
120 Miguel Angel Fernandez	00:41:50	00:41:36	03:58
122 Guillermo Trombotti	00:41:50	00:41:43	03:58
123 Pablo Uceru Arsuaga	00:41:50	00:41:40	03:58
124 Emilio Hernandez Gonzalez	00:42:02	00:41:58	04:00
131 Luis Enrique Gallego Olmo	00:42:12	00:42:07	04:01
148 Asier Gostegi Aliri	00:42:40	00:42:25	04:02
151 Martxelo Sanchez	00:42:41	00:42:31	04:03
156 Jose Angel Beldarrain	00:42:45	00:42:24	04:02
160 Oscar Gandia Pascual	00:42:53	00:42:48	04:05
164 Iker Pielago Vicario	00:42:55	00:42:10	04:01
165 Manex Altolaguirre	00:42:55	00:42:08	04:01
167 Aitor Otamendi Lizarazu	00:42:56	00:42:26	04:02
168 Alex Altuna Egitegi	00:43:00	00:42:36	04:03
170 Gorka Gil Martin	00:43:01	00:42:49	04:05
171 Tomas Gonzalez Bardón	00:43:07	00:42:45	04:04
172 Iñigo Sanchez Guerra	00:43:09	00:42:46	04:04
174 Rafael Santiago	00:43:13	00:42:50	04:05
176 Beñat Iriondo Yarza	00:43:19	00:43:10	04:07
190 Alberto Diaz Danboriena	00:43:35	00:43:30	04:09
192 David Gonzalez Corchuelo	00:43:37	00:43:24	04:08
198 Joseba Garcia Guereñu	00:43:46	00:43:30	04:09
204 Anabel Eleno Agustin	00:43:57	00:43:49	04:10
210 Josu Riezu Arregi	00:43:59	00:43:53	04:11
215 Jokin Goenaga Miner	00:44:05	00:43:46	04:10
222 Mikel Rey Barahona	00:44:09	00:43:40	04:10
227 Juan Luis de La Mata	00:44:18	00:44:09	04:12
229 Iraitz Pikabea Lopez	00:44:21	00:43:18	04:07
230 Eduardo Ormazabal	00:44:26	00:44:17	04:13
231 David Martin Blázquez	00:44:26	00:44:08	04:12
243 Iñaki Mangas Ruiz	00:44:51	00:44:27	04:14
245 Ibon Urdanpilleta Lizardi	00:44:52	00:44:43	04:16
251 Imanol Garmendia Maiz	00:44:59	00:44:03	04:12
253 Jose Ramon Mendizabal	00:44:59	00:44:52	04:16
255 Aitor Manero Gonzalez	00:45:07	00:44:35	04:15
259 Josu Olmos Amondarain	00:45:10	00:44:47	04:16
263 Javi Murguiondo Mendieta	00:45:16	00:45:07	04:18
271 Sergio Pinto Ruiz	00:45:23	00:45:08	04:18
273 Jose Luis Iñorbe Aguirre	00:45:30	00:45:09	04:18
274 Iker Lanchas Rebe	00:45:31	00:45:00	04:17
278 Jose Antonio Fernandez	00:45:35	00:45:06	04:18
279 Jon Ander Obineta Olaetxea	00:45:35	00:44:34	04:15
282 Xabier Otaegi Olasagasti	00:45:38	00:45:29	04:20
284 Aitor Fontecha	00:45:39	00:45:22	04:19
288 Oscar Calvo Ramos	00:45:40	00:45:33	04:20
289 Rodri Gil Martin	00:45:41	00:45:28	04:20
292 Jon Presa Herranz	00:45:44	00:44:57	04:17
293 Rebecca Villanueva Rojo	00:45:46	00:45:38	04:21

	Ofiziala	Erreala	Km.ko
297 Oskar Martínez Carretero	00:45:49	00:45:30	04:20
301 Gonzalo Gurruchaga	00:45:53	00:45:44	04:21
305 Ander Iriondo Azurmendi	00:46:02	00:45:52	04:22
314 David Ferrero Ferrero	00:46:10	00:45:44	04:21
317 Aitor Ezkurdia Iturriz	00:46:12	00:45:45	04:21
320 Peio Fadrique Fadrique	00:46:15	00:46:04	04:23
326 Andoni Mujika Calonge	00:46:18	00:45:56	04:22
328 Jonpe Artetxe Mendizabal	00:46:19	00:45:17	04:19
329 David Mecerreyes Molero	00:46:19	00:45:57	04:23
341 Carlos Blanco Sanchez	00:46:30	00:46:10	04:23
347 Arkaitz Sanchez Apecechea	00:46:39	00:46:06	04:23
350 Amagoia Fdez. De Lezea	00:46:41	00:46:31	04:26
351 Jon González Martin	00:46:41	00:46:00	04:23
352 Argoitz Arruabarrena	00:46:41	00:46:02	04:23
358 Xabier Puertas Berasaluce	00:46:49	00:46:16	04:24
359 Mikel Corta Albizu	00:46:52	00:46:41	04:27
363 Mikel Villarroya Makazaga	00:46:56	00:46:11	04:24
371 Javier Montejo Fernandez	00:47:02	00:46:31	04:26
375 Sergio Garcia Gonzalez	00:47:02	00:46:46	04:27
376 Koldo Puyadena	00:47:04	00:46:33	04:26
378 Ronier El Diaz	00:47:05	00:46:51	04:28
382 Tomas Arruti Aldalur	00:47:10	00:46:09	04:24
383 Sergio Mendez Manuel	00:47:10	00:46:25	04:25
386 Ando Aguilera Lopez	00:47:16	00:47:02	04:29
387 Salvador Tudela Seguer	00:47:17	00:47:10	04:30
393 Jon Piélago Vicario	00:47:21	00:46:58	04:28
397 Jon Ander Unanue Otegi	00:47:26	00:46:54	04:28
401 Asier Abtanga Armandier	00:47:31	00:46:57	04:28
406 Raul Barrera Daniel	00:47:31	00:47:04	04:29
413 Ibai Vazquez Cobo	00:47:40	00:46:53	04:28
421 Enric Cebria Andreu	00:47:53	00:47:24	04:31
422 Patxi Urriza Escudero	00:47:53	00:47:24	04:31
423 Oskar Gonzalez Ramos	00:47:54	00:47:27	04:31
430 Mikel Jimenez Macuso	00:48:00	00:47:24	04:31
437 Iñigo Manuel Iglesias	00:48:04	00:47:31	04:32
446 Patxi Garcia Felipe	00:48:13	00:47:42	04:33
448 Jose Maria Gonzalez Marcos	00:48:13	00:48:10	04:35
449 Daniel Lopez Amil	00:48:14	00:47:25	04:31
452 Miguel Granado Nogales	00:48:16	00:48:09	04:35
453 Ivan Granado Macazaga	00:48:17	00:48:09	04:35
454 Mikel Ollara Gratas	00:48:17	00:47:40	04:32
456 Jose Felix Etxeberria	00:48:18	00:47:31	04:32
458 Ikerne Peciña Echezar	00:48:20	00:47:55	04:34
461 Alvaro Reyes Hernando	00:48:20	00:48:01	04:34
464 Fran Toquero Alvarez	00:48:22	00:48:19	04:36
469 Ignacio Rodriguez De Castro	00:48:25	00:48:05	04:35
480 Aitor Mayo Moreno	00:48:34	00:48:17	04:36
481 Jose Angel Busto	00:48:34	00:48:00	04:34
485 Gaizka Ormazabal Ortega	00:48:38	00:48:32	04:37
486 Juan Pablo Calvarro Baz	00:48:39	00:48:06	04:35
489 Jose Antonio Martinez	00:48:42	00:48:22	04:36
492 Txetxu Mertzan Villarón	00:48:43	00:48:33	04:37
493 Alvaro Mendibe Palomo	00:48:51	00:47:26	04:31
494 Jesus Arozena Isasa	00:48:51	00:47:49	04:33
500 Asier Avila Ruiz	00:48:54	00:48:17	04:36
502 Aitor Hernando Cobo	00:48:54	00:48:08	04:35
504 Iñigo Otaegi Beldarrain	00:48:56	00:48:25	04:37
505 David Montejo Estevez	00:48:56	00:48:21	04:36
513 Enaut Azkarate Alkorta	00:49:04	00:48:42	04:38
514 Rafael Ruiz Achiaga	00:49:04	00:48:41	04:38
518 Julien Bermejo Felipe	00:49:08	00:48:19	04:36
520 Carlos González González	00:49:09	00:48:48	04:39
524 Jaime Blanco Sanchez	00:49:13	00:48:42	04:38
525 Javi Martinez Urruzola	00:49:14	00:48:54	04:39
528 Iñigo Ibarburu Zuriarrain	00:49:15	00:48:57	04:40
529 Miguel Angel Martin Azcona	00:49:15	00:48:47	04:39
532 Gema Tejero Cano	00:49:16	00:49:12	04:41
533 Iñaki Navarro	00:49:17	00:48:45	04:39
534 Jose Alberdi Lorenzo	00:49:21	00:48:57	04:40
536 Miguel Gil Pelaez	00:49:22	00:49:10	04:41

	Ofiziala	Erreala	Km.ko
537 Zigor Lekaroz	00:49:23	00:49:04	04:40
542 Egoitz Arozena Yarza	00:49:26	00:48:55	04:40
544 Igor Lopez Fernandez	00:49:26	00:48:58	04:40
550 Sergio Rivera Dominguez	00:49:35	00:48:52	04:39
552 Joxe Goikoetxea Nieto	00:49:35	00:48:52	04:39
553 Jose Antonio Calvo Castro	00:49:35	00:49:22	04:42
556 Jose Angel Esteban	00:49:36	00:49:16	04:42
560 Oscar Jimenez Simon	00:49:41	00:49:10	04:41
562 Cesar Zarraquiños Eiorza	00:49:45	00:49:13	04:41
564 Agustin Castro Diez	00:49:47	00:49:41	04:44
570 Francisco Javier Quinteiro	00:49:53	00:49:10	04:41
573 Ander Varela De Cos	00:49:54	00:49:19	04:42
579 Gorka Lasa Azpiazu	00:50:08	00:50:00	04:46
581 Oskar Solano Bilbao	00:50:08	00:49:50	04:45
589 Anez Lozano Urdanpilleta	00:50:18	00:49:55	04:45
592 Iurgi Los Arcos Ayerdi	00:50:21	00:50:14	04:47
599 Jorge Iglesias Centeno	00:50:27	00:49:43	04:44
601 Javier Garcia Barbe	00:50:28	00:49:22	04:42
605 Cristian Miranda	00:50:32	00:50:07	04:46
609 Ion Zugasti Simon	00:50:39	00:49:53	04:45
613 Oscar Lopez Freireiro	00:50:40	00:49:50	04:42
619 Julien Sasiain Salaberria	00:50:43	00:50:01	04:46
624 Iker Fernandez Roncero	00:50:47	00:50:16	04:47
627 Aitor Aristondoa Aguirre	00:50:49	00:50:16	04:47
628 Aitor Guizarro Mateos	00:50:49	00:50:17	04:47
635 Mikel Ormazabal Garmendia	00:50:57	00:50:11	04:47
640 Jose Ignacio Mendiluce	00:51:03	00:50:23	04:48
641 Ivan Herrero Prieto	00:51:05	00:50:17	04:47
643 Juan Jose Molano Bermejo	00:51:06	00:51:00	04:51
645 Maite Salazar Badiola	00:51:09	00:50:52	04:51
647 Nerea Arteaga Martiarena	00:51:09	00:50:53	04:51
649 Ruben Amaiz Garcia	00:51:14	00:50:40	04:50
655 Luis Sobejano Bermejo	00:51:14	00:50:43	04:50
660 Mikel Olaiiz Garmendia	00:51:19	00:50:39	04:49
661 Iker Lopez Fernandez	00:51:22	00:50:53	04:51
663 Fede Otaegi Fino	00:51:29	00:50:40	04:50
665 Oscar Varga Contreras	00:51:31	00:51:12	04:53
667 Miguel Angel Aguado	00:51:31	00:51:12	04:53
668 Patxi Arrieta Valverde	00:51:32	00:51:11	04:52
669 Maxi Mutillo Paredes	00:51:32	00:51:12	04:53
671 Jose Maria Aizpurua	00:51:32	00:51:03	04:52
672 Asier Esnaola Barragan	00:51:32	00:50:58	04:51
673 Andoni Gomez Irazu	00:51:33	00:51:03	04:52
678 Luis Miguel Gimenez	00:51:37	00:51:37	04:55
679 Aritz Solano Garcia	00:51:37	00:50:49	04:50
680 Carlos Martinez Pindado	00:51:39	00:50:39	04:49
684 Ignacio Pozo Segura	00:51:40	00:51:10	04:52
690 Frn Ariztimuño Zabaleta	00:51:48	00:51:07	04:52
695 Julien Basterra Garmendia	00:52:00	00:51:28	04:54
700 Juanjo Martin Gonzalez	00:52:09	00:51:31	04:54
702 Imanol Avila Sanchez	00:52:10	00:51:33	04:55
706 Jon Urreta Del Campo	00:52:10	00:51:28	04:54
710 Imanol Carballes	00:52:11	00:51:30	04:54
711 Joaquin Montero Barrios	00:52:11	00:51:38	04:55
712 Hilario Sobejano	00:52:14	00:51:30	04:54
715 Aitor Erauskín Aranburu	00:52:14	00:51:56	04:57
716 Angel Goiburru Lopez	00:52:14	00:51:49	04:56
718 Jose Ignacio Gonzalez	00:52:14	00:51:50	04:56
720 Iñaki Fernandez Prieto	00:52:16	00:51:41	04:55
723 Andoni Salsamendi	00:52:19	00:52:10	04:58
728 David Gomez Mancebo	00:52:25	00:51:35	04:55
730 Miguel Angel Calle Prieto	00:52:27	00:51:58	04:57
731 Guillermo Carcedo Martin	00:52:27	00:51:52	04:56
736 Jorge Garate Arrieta	00:52:31	00:51:55	04:57
738 Idoia Telleria Maritxalar	00:52:32	00:51:38	04:55
740 Oskar Garcia Clemente	00:52:33	00:51:57	04:57
743 Carlos Muñoz Arrate	00:52:34	00:51:40	04:55
744 Mªteresa De Celis Baños	00:52:36	00:52:10	04:58

Herritarren sailkapena

	Ofiziala	Erreala	Km.ko
747 Javi Vecilla Garcia	00:52:39	00:51:45	04:56
748 Juan Mari Artola Sukia	00:52:40	00:51:43	04:56
754 Cesar Diez Sanchez	00:52:41	00:51:42	04:55
756 Txanpi Baztarrkia	00:52:43	00:51:54	04:57
770 Jon Martin Tejeria	00:52:56	00:51:50	04:56
771 Olatz Arozena Isasa	00:52:56	00:51:53	04:56
774 Ibon Etxezarreta Etxaniz	00:52:59	00:51:59	04:57
775 Masimo Lopez Galan	00:53:00	00:52:25	05:00



Kros Txikia gurpildun aulkian osatu zuen neska honek.



laz geltoki kalean marea arrosa ikusi bagenuen, aurten itsaso urdin bilakatu zen.



Asier Olmos (808) gailendu zen kadete mailako lasterketan.



Jalguneko lagunek urtero bezala dominak eta yogurtak banatu zituzten.

Marea urdina herriko kaleetan

800 haurrek itsaso bihurtu zuten Lasarte-Oria soinean kamixeta urdina zutela

Kolore urdina izan zen nagusi eguerditik aurrera Geltoki Kalean eta inguruetan. Urtero bezala, jendetza bildu zen atleta gaztetzoei txalo eta animoak ematera. Parte-hartzaileen artean, denetarik irudi eta momentuak ikusi ahal izan ziren. Ohiko erorketak, gurasoen eromena, irabaztea beste helbururik ez zuten gaztetzoeen lehia, lagunarekin eskutik helduta helmugaratu zirenen poza... Horixe baita kros txikia. Anitza.

Herriko gaztetzoez at egun handia izan zen atzokoa. Irteeraman gurtzek egonezin handia zeukaten antolatzaileek txilibitua noiz joko.

Ehunka haur, dena 800, izan ziren kategoria ezberdinetan zapatilak lotzeko hauta egin zutenak.

Batzuei kosta zitzairen peto laranja zeukaten bolondresen atzetik lehen metroak egitea. Hasi orduko sprintari ekin nahi izan zion bat baino gehiagok, baina Ostadarreko kideek ez zieten utzi. Hortzak

estutzeko garaia izango zutela esaten zieten, baina aurrerago.

Erbiek alde egitean... benetako festa, tsunamia. Ezkerretik, eskuinetik, ia gainetik ere bai. Gaztetzoeak nola edo hala elkarri aurreratzea zuten helburu eta ohiko erorketa bat edo beste izan bazen ere, inork ez zuen minik hartu.

Txalotuenak, ohi den legez, azken postuetan helmugaratutakoak izan ziren, herritarren berotasuna jaso zuten neska-mutiko hauek.

Helmugan saria

Esfortzuen ostean, zain zizuten atleta txikitxoek Jalguneko lagunak. Dominak, ur-botilak eta yogurtak banatzen aritu ziren helmuga pasata zegoen postu batean kokatuta.

Kros Txikia eredu baita, eta adibide ere bai aldi berean. Eredu da auzolan eta antolakuntza onarekin gauza ederrak egin daitezkeela erakusten duelako eta adibide berriz, gaztetzoez zeinen jarrera ezberdinak hartzen dituzten ikusteko. Lasterketa berean kosta ahala kosta irabazi behar dutenak daude, eta lagunari eskutik helduta sartzea nahiago dutenak ere bai. Aniztasun horrek ematen dio bizia herriko lasterketari.

Oro har beraz, festa egun handiaz gozatzeko aukera izan zuten gaztetzoei lasarte-riarrek.



Ohi bezala, bolondresen lana ezinbestekoa izan zen Kros Txikian.



Herriko txikitxoek barruan zuten guztia eman zuten eta bati baino gehiagori zuzengunea luzeegia egin zitzaion...



Txapeldun handi izana Helduen krosean eta luxuzko laguntzaile Kros Txikian. Umiltasun lezioa. David Martin.



Denetarik irudiak utzi zituen txikien XIV. krosak.



Kros txikiko saridun guztiak Aitor Azkonbieta Ostadar S.K.Tko kidearekin.

 Elena Milla (20/45)
Carlos Milla

MILLA, ETXEEN SALEROSKETA

L-Oko krosarekin bat eginez!

- INMOBILIARIA
- ETXEBIZITZEN ADMINISTRAZIOA

Oriamendi 2, behea • Tel./faxa: 943 371600
LASARTE-ORIA

 **ANORGA TXIBI S.L**
Lasarte-Oria Bai

KRISTALDEGIA Zorionak, korrikalari guztiak!

• komertzial instalazioak • beira bikoitza
segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
• ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

 Errazioak
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Zorionak korrikalari guztiak!
Entsaladak

PROBATU GURE KARTA BERRIA!

Tel.: 943 37 17 42

Largonea Kalea, 1
20160 Lasarte-Oria

facebook.com/ArkupeTaberna

Krosean ateratako irudi gehiago



Eskoba taldeak azkenengo korrikalariaren ondoan egin du bidea.



Geroz eta emakume gehiago dira korrika egitera animatzen direnak; hala erakutsi zuten gurean ere.



Euskal futbol taldeek ere izan zuten ordezkaritza atzo.



Jose Luis Juarez 'Ganbers' zenaren lagunak, krosa amaizten.



Argazki eta bideo guztiak txintxarri.info eta facebook orrialdean



Ume askok zeharkatu zuten helmuga beraien gurasoen laguntzaz. Kros Txikiak ikusiko ditugu laster.



Garrantzitsuak izaten dira luzaketa ariketak, lasterketa aurretik.



Korrikalariak indarrak berritu dituzte amaieran, fruta gozoa dastatuz.



Herritar talde batek bere egin zuen euskal presoak etxeratzeko aldarria.



Boluntario eta laguntzaileen lana ezinbestekoa da urtero, Lasarte-Oria Bail Kros Herrikoia aurrera ateratzeko: elbarriak lagundu zituzten txirrindulariak, saiklapenak egin zituztenak...




Indarberritzeko beste era bat izan ohi dira txikiaren maitasun keinuak.



Zaitasunen aurrean aurrera jarraitzeko borondatea erakutsi zuen atleta honek atzoko lasterketan.

Agenda

Aste osoan, Jalgin



Grabatuak ikusteko azken astea

Alots Arregi artista azkoitiarraren grabatu bilduma dago ikusgai Jalgi Kafe Antzokian. Hilabete osoa egingo du erakusketak bertan eta honakoa izango da beraz, azken astea artista gazte honen lanak ikusteko. Arte Ederretan lizentziatua da Arregi eta bereziki mar-goan, marrazketan eta animazioan oinarritu du bere orain arteko ibilbide artistikoa.

Kontukantoeikin ipuin kontalari saioa haur liburutegian. Honakoa 6,7 eta 8 urteko umeek zuzenduta egongo da. Saiora umeak bakarrik sartuko dira. Doan.

Dokumentala

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Astelehena 27, 19:00etan
Oihu Anizkoitza film laburra ikusi ahal izango da. Ibon Fernandez Iradi presoaren egoeraz. Doan.

Andoain

Musika

BASTERO
Ostirala 31, 22:00etan
Chuck Prophet & The Mision Express kontzertua. Teloneroa izango da Jonah Tolchin. Sarrera 12 euro.

Usurbil

Musika

SUTEGI
Ostirala 7, 22:00etan
"Piano bat bertotan. Gurekin abestu nahi?" emanaldia izango da. Sarrera aurrez erosita 6 euro, egunean bertan 7 euro.

handiko filma grabatzera etorriko denean. Errodaje talde honen etorrerarekin, egoera zoro eta dibertigarri asko gertatzen dira. Sarrera Interneten 5,40 euro eta leihatilan, 6,60 euro.

Ipuin-kontalaria
MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Azaroak 5, 18:00etan

Lasarte-Oria

Musika

BRIGITARREN KOMENTUA
Ostirala 31, 19:30ean
Donostiako Francisco Escudero Abesbatzaren emanaldia izango da Brigitarren komentuan. Doan.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 31, 22:00etan
Asier Ormaza eta Oscar Terolen "Figurantes" antzezlanak ikusi ahal izango da. Euskal Herriko herrirka baketsu batetako bizimodu lasaia kolpetik aldatuko da zinema ekoizle bat euskal zaporea topatu nahian aurrekontu


Zorion agurrak




Ekain eta Lorea
Kasualitatearen aurpegi pozgarria. Muxu potoloa denon partetik. Zorionak!



Danel
Txokolatzeko lau muxu handi familiaren partetik!!



Nora
Zorionak guapetona!! Ederki pasa 13 urte horiek ospatzen Muxu potoloak!!!



Amaia
Zorionak txapelduna! Ondo pasa egun honetan! Txokolatzeko muxuak zure lagunen partetik!



Dune
Zorionak familiaren partetik! Muxu haundi bat!

Herritarren txokoa

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, hamar txirrinda, bi mugikor, bi pultsera, bideo joko bat, monopatina, bi diru zorroa, bateria eta urrunetik gidatutako auto kargatzailea, hortz protesi bat, graduatutako betaurrekoak eta eraztun bat. Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbildu eta jasotzeko, goizez 09:00etatik 13:00etara.

Usurbilgo Lanbide Eskola

2014ko ekainean ikasketak amaitu zituzten ikasleek tituluaren eskaera egiteko aplikatiboa martxan dago eta epe laburrean eskolatik pasa behar dute. Bestalde, 2013an titulua eskatu zutenek hau jasotzera pasa daitezke.

Txintxarri banaketa

Datozen asteetan aldizkariaren banaketan hainbat aldaketa egingo ditugu. Hauek egin bitartean, gerta

daiteke aldizkaria etxean ohiko ordutegian ez jasotzea. Hau gertatzen bada eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea.

63an jaiotako enafaria

Kaixo 63an jaiotako guztiei! Aurten ere enafaria egitekotan garelako jakinarazi nahi dizuegu. Azaroaren 22an izango da enafaria, oraingo honetan Abenden gaueko 21:00etatik aurrera. Aurrez, 20:00etan Okendo plazan elkartzeko asmoa daukagu pote batzuk hartzeko. Aurten ere menuaren prezioa 36 eurotako izango da. Joan nahi duzuenok dirua Laboral-Kutxako ES24 3035 0036 1003 61134420 kontu korrontean sar dezakezue. Harremanetarako telefonoak: 696 914 566 edo 657 770 318. Anima zaitzete!

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Tiakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Iñigo Gonzalez, Jon Altuna E.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com

administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

LUIS CAR

autobusak

-Espainiako eta nazioarteko garraio-zerbitzuak.
-Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
-15 plazako microbusak.
-55 plazako autocarrak.
-Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

Korrikalariekin bat eginez!

Uzturre plaza 1 Tel./faxa:943366316 Mobila: 629461897 LASARTE-ORIA

Maite B ETELU

- B** Aseguruak
- B** Etxebizitza
- B** administrazioa
- B** Gestoria
- B** Aholkularitza
- B** Inmobiliaria
- B** zerbitzuak



ZORIONAK korrikalari guztiei!

Aralar plaza 4 behea • Lasarte-Oria
Tel.: 943 364886 • Faxa: 943 372117



Lasarte-Oria Bai!





Zure LEIHO berrientzat

-%22^{ko} SUBENTZIOA

Etorri eta informatuko zaitugu!

Zuregandik hurbil
www.facebook.com/VentanasAlcar

ERAKUSKETA
Plaza Oriamendi, 2
 (Lehenko Doble J)
20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa

TAILERRA
Ibaiondo, 4
erdisotoa 5-A

Tel: 943 37 78 68
tienda@ventanasalcar.com
www.ventanasalcar.com

Zorionak korrikalari guztiei!

Lasarte-Oria Bai!



JOSE AIZPURUA UNANUE S.L.

eraikuntzak



- Igeltseritza orokorrean
- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Gremioen koordinazioa
- Barne erreformak



L-Oko
 krosarekin
 bat eginez
Lasarte-Oria Bai!



Nagusia 14 behea atzekoaldea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373879 • Mobila: 620 800186